

ATZIZKI-EGITURA BATEN BILAKAERAZ

IBON SARASOLA

Artikulu honetan JEAN DUBOIS-en "Etude sur la derivation suffixale en français moderne et contemporain" lanaren berri * eman nahi dugu, gure artean darabilgun hainbat arazotan argi egin dezakeelako ustetan. Estudioa **Petit Larousse** hiztegiaren 1906ko eta 1960eko edizioak gonbaratuz egin da. Hiztegi osoak analizatzeko ezintasunagatik, edizio bakoitzeko **A** letra osoa hautatu da azterketa egiteko. **A** letra ez zen aukeratu lehena zelako, baizik alde batetik mostra nahikoa zabala eta adierazgarria eskaintzen zuelako, eta bestetik letra hortako hitzek lexikoaren konplexutasun morfoloikoa aski ongi ikusarazten eta erakusten zutelako.

Petit Larousseren 1906ko edizioak 3885 sarrera (edo hitz) ditu, eta 1960ekoak 3592. Diferentzia, gehien bat, itxurazkoa da: 1906ko edizioan bi sarreratan ematen diren adierak, 1960ekoan "hitz" bakar batera biltzen dira askotan. Kasu hauk kenduz, egiazko diferentzia ehuneko 4 da, eta hori da lanean erabiltzen den koefiziente zuzentzailea.

Lehenik atzizki garrantzitsuenen taula aurkezten da, atzizki bakoitzarentzat delako atzizkia duten hitzen kopurua eta halaber, irauten duten, erantsi diren eta desagertu diren hitzena ematen delarik.

(*) Ik. **Introduction à la lexicographie: le dictionnaire**, Jean eta Claude Duboisen liburua (Ed. Larousse, 1971) 13. kapitulua.

Atzizkiak	1906 A	1960 B	Dirau- tenak C	Gehi- tuak D	Ken- duak E
-age	88	77	65	12	23
-ment	175	152	145	7	30
-tion, -ation, -isation, e.a.	165	151	138	13	27
-ing	0	1	0	1	0
-ure, -is, ière	43	27	27	0	16
-ité	70	58	53	5	17
-isme	53	74	43	31	10
-at	21	26	18	8	3
-ie	137	159	107	52	30
-ance/ence	30	30	28	2	2
-ise	2	0	0	0	2
-erie	21	9	9	0	12
-eur	134	120	99	21	35
-euse	4	8	3	5	1
-oir, -oire, -ail, -on	49	39	35	4	14
-er, -esse, -ier	53	50	44	6	9
-ien, -en	36	40	31	9	5
-iste	53	57	41	16	12
-ant/-ent	106	103	84	19	22
-able, ble	79	57	53	4	26
-al/-el	52	58	40	18	12
-if	57	44	38	6	19
-oir	12	11	11	0	1
-aire	44	46	36	10	8
-eux	40	35	31	4	9
-ment adb.	113	97	96	1	17
-ique	170	182	125	57	45
-ose/ite	27	46	26	20	1
-ène	4	7	4	3	0
-ine	31	31	22	9	9
-oide	11	13	10	3	1
Atzizki grekoak	22	32	14	18	8
Atzizki latinoak	37	31	28	3	9

Ezer baino lehen, lexikoaren mugikortasuna azpimarkatzen da. Au-
rreko taulan aski nabari agertzen bada ere, hitz guztiak (ez soilik atzizki-
dunak) kontuan harturik areago nabaritzen da. JEAN DUBOIS-en beraren beste
estudio baten arauera, **Petit Larousse**ren 1949ko edizioako 36000 sarrerei

buruz, 1960eko edizioan 5105 kentze eta 3973 gehitze gertatu ziren. A letrari dagokionez, 2942 sarrerarekin, 275 kentze, 140 gehitze. Sarrera kenduak 1949ko edizioaren ehuneko 14 suposatzen dute, eta gehituak 1960ekoaren ehuneko 11,4. Bestalde, hitzen (edo sarreren) barneko adiera desberdinen mugimenduari dagokionez, 4300 hitz hartzen ditu (hau da, 4300 hitzek adiera bat edo batzu galtzen edo irabazten dituzte). Mugimendu honek, 1960ean irauten duten 1949ko sarreren ehuneko 12 suposatzen du. Beraz, 1949tik 1960era, hau da, 21 urteko epe batean, frantses hiztegiaren ia ehuneko 25 aldatu da. Bestalde, aldaketa honen zentzua ere aski azpimarkagarria da: aipatu ditugun 3973 gehitzeetatik, soilik 310 (ehuneko 9) dagozkio hiztegi orokorrari. Gainerako gehitze guztiak zientzi eta teknik hiztegiari dagozkie. Kentzeetan aldiz, hiztegi orokorrari dagokion, portzentaia 34,8ra igotzen da. Frantses hizkuntzaren hiztegiaren mugikortasuna, egitura bizi guztiana bezala, gauza nabaria da, eta halaber mugikortasun horrek gaur egun azaltzen duen norabidea. Azpimarkagarria da halaber, hitz atzizkidunak totalari buruz suposatzen duten portzentaia: 67,13 1906ko edizioan eta 70,00 1960ekoan. Portzentaia garaia eta goratuz doana.

Aurkeztu den taula erabilgarriagoa eta adierazgarriagoa egiteko, hiru koefiziente eratzten dira:

a) **Mugikortasun-koefizientea (M)** : $\left[\frac{(D + E)}{(A + B)} \right] \times 100$, hots, hitz gehitu eta kenduen portzentaia 1906 eta 1960eko edizioetako hitzen batuketari buruz.

b) **Urritze-koefizientea (U)** : $(E/A) \times 100$, hots, bi edizioen artean kendu diren hitzen portzentaia 1906ko hitzen kopuruari buruz.

c) **Hedatze-koefizientea (H)** : $(D/B) \times 100$, hots, bi edizioen artean gehitu diren hitzen portzentaia 1960eko hitzen kopuruari buruz.

Mugikortasun-koefizientea apala denean ($M < 10$), atzizkiak bere erabilgarritasuna galdu duela esan nahi du, hau da, atzizkia ez dela jadanik hizkuntzaren sisteman atzizki bezala sentitzen, eta ondorioz, ez dela berez hitz berriak sortzeko gai. Urritze-koefizientea garaia bada eta hedatze-koefizientea apala, atzizkia, desagertzeko zorian aurkitzen diren zereginei eta gauzei loturik dagoela esan nahi du. Hedatze-koefiziente garai batek, delako atzizkiak hitz berrien sorkintzan erabilbide handi bat aurkitu duela esan nahi du.

-age, -ment, -tion.

Atzizki hauetaz baliatzen da batez ere frantsesa egintza-izenak moldatzeko. Hirurok aski berdinak dira morfologikoki, eta beraz askotan trukagarriak gertatzen dira. Atzizkion garrantzia gutxituz doa, ondoko koadroan ikus daitekeenez:

	M	H	U
-age	21,2	15,5	26,1
-tion	12,6	8,6	16,3
-ment	11,3	4,0	17,1

Izan ere sail honetako atzizkiak ondoren ikusiko dugun sailaren erasoia pairatzen dute gaur egun. Bestalde, sailaren beraren barne-orekan, **-tion -ment** baztertzen ari da, bere tokia hartuz. Gertakaria honetan ez da ahaztu behar inglesaren eragina, zeinak **-tion** atzizkia aski bizirik baitu.

-isme, -(i)té, -ie.

Sail honetako atzizkien aldakortasuna azpimarkagarria da, ondoko koadroan ikus daitekeenez.

	M	H	U
-isme	32,2	41,8	18,8
-(i)té	17,1	8,6	24,2
-ie	27,6	33,3	21,0

Lehen seinatu behar den gauza, **-isme**-ren hedatze izugarria da. Hori, noski, beste atzizkiren tokia hartuz gertatu da, eta beraz, **-isme**-ren ezartze-possibilitateak areagotuz: hasieran adjektibo ez abstraktu bati erantsirik soilik erabil zitekeen, ondoren zernahi adjektibo edo izeni, eta gaur izen propioei (**Joséphisme, suissime**), aditzei (**dirigisme, morcellisme**), izen arrotzei (**gestaltisme**), eta are esaldi osoei (**jemenfichisme, aquoibonisme, "à quoi bon"-etik**) ere.

-ie-ren hedakuntza, psikologia, medikuntza, industria eta teknikaren desaroiloari loturik gertatzen ari da, zientziak eta zientzi metodo edo teknikak izendatzeko erabiltzen baita. Urritze-koefiziente aski garaia ere horrela ulertzen da: teknika edo metodoren bat zaharkitua gertatzen denean, zaharkitua gertatzen da halaber hura izendatzeko erabiltzen zen hitza.

Koadroak agertzen duenez, **-(i)té** atzeratuz doa: beraren hedatzea urritzearen herena da. Atzizki honi ere **-isme**-k jaten dio hedadura XIX. mendearen hasieraz gero, sozio-politik doktrina ezaguna izendatzeko. Gaur egun bi atzizkiok (cf. **-tasun**, bien artean gertatzen dena) aski baliokideak dira eta, teorikoki, trukagarriak. Bereizketak egiten direnean (**modernité/modernisme**) sekundarioak dira.

Atzizki-sail honen hedatzeak beste askoren bazterketa ekarri du: **-ise, -ence/ance, -itude, -eur, -esse, ...**, zeinen atzerakada nabaria baita. Dirudienez frantziar atzizki-sistemaren erredukzio baten aurrean gaude: hainbat atzizki beren atzizkitasuna galduz doaz beste zenbaiten eraginaren eta hedakuntzaren pean. Eragin hori ez da mugatzen sail bateko barne-mugimenduari. Horrela, sailen arteko mugimendu bat ere nabari daiteke, aztertu ditugun bi sailetan adibidez:

	1.906	1.960
-age, -ment, -tion	428	395
-isme, -ité, -ie	281	320

Bigarren egitura lehen egituraren domeinuetan hedatzen ari da. Dirudienez, kontzeptu berriak adierazteko areago nahi da funtzio, sistema, koalitate eta zientzia bat izendatzeko erabiltzen diren atzizkiak enplegatzea, egintza-izenak osatzeko erabili ohi direnak baino.

Egile edo instrumentu-atzizkiak

Gizartearen bilakaerak atzizki-sistemaren bilakaeran duen eragina sail honetako atzizkietan nabaritzen da argien. Teknikaren desarroikoak, mekanizazioak lehenik eta automatizazioak ondoren, makina ipini du gizonaren lekuan produkzio-prozesoa. Gertakari honen arauera, atzizki-sistemaren berriraketa bat gertatu da. Alde batetik, egilearen izena makinaren izena bilakatzen ari da: **distributeur** jadanik ez da soilik "banatzen duen pertsona", baizik halaber "banatzen duen tresna" (**distributeur d'engrais**). Baina **-eur** atzizkiak kide femenino bat, **-euse**, duelarik, bereizketa bat gertatu da bi atzizkion erabilera: **-eur** tresnak adierazteko (cf. **appareil** maskulinoa) erabiltzen da, eta **-euse**, makinak (cf. **machine** femeninoa) adierazteko: **aspirateur-a** "appareil" bat da, baina **conditioneuse-a** "machine" bat. Joera, gaur egun, atzizkiok instrumentu-izenak sortzeko erabiltzea da. **-eur** eta **-euse**-ren hedatze hau beste atzizkiren kaltetan obratu da, hala nola **-oir**, laborantza lanabesak izendatzeko hitzetan erabiltzen zena. Beste alde egilea adierazten duten izenak eratzeko funtzioa hartu dute, lehen zuten balio adjektibalaz gainera. **-iste**-ren hedatzean, bestalde **-isme** atzizki hedakorraz duen korrelazioa ez da ahaztu behar.

Adjektiboak eratzeko atzizkiak.

Sail honetako atzizki garrantzitsuenen koadroa hau da:

	M	H	U
-ique	28,9	33,3	20,0
-al/el	27,2	31,0	23,0
-if	24,7	17,0	33,3
-aire	20,0	21,0	18,1

Koadrotik atera daitekeen lehen ondorioa, adjektiboen inestabilitasuna da. Dena dela, gramatik kategoria honek gainerakoak baino hedatze-koefiziente orokor garaigo bat agertzen du, egiaztatzen delarik horrela, kultur hizkuntzetan gaur egun ematen den koalifikatiboen aurrerabidea, determinatiboen kaltetan egiten dena.

Azpimarkagarria da **-ique**-ren hedatze nabaria: hain zuzen bere espezialdu da sailaren barnean teknik eta zientzi hitzak sortzeko. **-el**-en hedatzea **-if**-en atzerakadaren kontura gertatzen ari da: **conceptuel**-ek **conceptif** baztertu du, eta halaber, psikologian, **réactionnel**-ek **réactif**.

-able-ri dagokionez, hainbat hizkuntzatan gertatu bide den bezala (cf. euskaraz), lehen zuen funtzio aktiboa galdu du, eta gaur egun atzizki emankor bezala funtzio pasibo bat du soilik.

Ondorio gisa

Azaldu diren puntu hauek ba dute gure artean darabilgun hainbat eztabaidarekin zerikusirik. Baina ondorioak ateratzea irakurle bakoitzari dagokion egitekoa dela uste dugu. Gure aldetik puntu soil bat azpimarkatu nahi dugu: hizkuntza baten bilakaera gobernatzen duten duten legeak aski konplexuak direla, eta beraz, hitz berrien sorketan edo hiztegi baten eraketan soilik irispide filologikoak kontuan hartzea kolpea huts egitea dela. Eta honekin loturik, "aberastasun" a hizkuntzei dagokionez, konzeptu aski ekibokoa dela: giza ahalmenak mugatuak direnez gero, hizkuntza batetan hitz berri bat sortzen denean hitz zahar bat ahazten dela, bereizkuntza bat eratzen denean, beste bereizkuntza bat zaharkiturik eta bazterturik gertatzen dela. Hitz batez, gure hizkuntza zenbait alorretan aberatsegi eta beste zenbaitetan probreegi honetarako funtzionaltasuna behar dugula aberastasu-na baino areago.

